

Azken mendeko Euskal Herriko jantziak liburu batean bildu ditu Ane Albisuk. Jantziari baino, janzteari, prestatzeari edo atontzeari garrantzi gehiago ematen dio. **TESTUA I.F.**

Betiko jantziak, gaur ere bai

JANTZIAK soinean jartzen ditugun arropak baino zer-bait gehiago direla ahaztu egiten zaigu batzutan. Horregatik, euskal jantzi tradizionalak kontu estetiko haratago doazela gogoratu nahi izan digu Ane Albisu filologo donostiarrak. Gure historia eta kulturaren erakusgarri garran-tzitsu diren euskal jantziak *Atundu XXI. Menderako proposamena* liburuan bildu ditu. Azken ehun urteotan Euskal Herriko gizon zein emakumeek erabili dituzten jantziak berreskuratu ditu bertan. Liburua argazki bilduma bikaina ere bada, eta irakurleak jantzi ezberdinen arteko berdintasun eta ezberdintasunak ikus ditzake. Baina lana ez da hor gelditzen. Egun berezietarako bakarrik gordetzen ditugun jantzi horien esanahia berreskuratzen saiatu da Albisu, baserritar jantzia, poxpolin jantzia, arrantzale jantzia eta beste hainbat jantzi noiz, nola eta zertarako erabiltzen ziren gogoratuz.

1976ean hasi zen euskal jantziak ikertzen Ane Albisu, eta azken 15 urte hauek ikerketa eta diseinua uztartuz eman ditu, *Atundu* ekimena zuzen-tzen. Liburu honetan laburbildu ditu hainbat eta hainbat diseinu, artikulu, hitzaldi eta ikastarotan metatutako ezagutza eta eskarmen-tua. "Hasiera batean liburuak ahalik eta ikuspegi gehien bil zitzaizkan nahi nuen: ikerketa sakona islatu, argazkien bidezko irakurketa eskaini, baita ahalik eta informazio praktikoa ere. Baina hori guztia argitalpen bakar batean, zabala izan arren, zaila da, ia ezinezkoa, eta, azkenean, liburu hau egindako lan handiaren iceberg baten tontorra bezalakoa da, ikusten ez den lan asko dago liburu honen atzean", azaltzen du egileak.

Azken hamabost urteotan jantzi

proiektu honetan, *Atundu* proiektuan alegia, eginiko lana zabaltzeko bultzatu du Albisu liburu hau idaztera. Bestetik ere, "gai honen inguruko ikerketak eta hausnarketak kaleratzeko nahiak", animatu diola gaineratzen du Albisuk. Dantza, musika eta antzerki munduan aritua da, baina jantziaren inguruan eginiko ikasketek eta diseinuek, batez ere, definitzen dute hobekien Albisuren nortasuna.

Urte asko daramatza, ikerketa eta diseinua uztartuz. Eta esperientzia luze hori laburbildu du liburu honetan. Gaur egun tradiziozko jantziaren egoera orokorrean zer nolakoa den "azaldu eta zehazki XX. mendeko azterketa egin ondoren etorkizuneko proposamena" egin nahi zuela dio ikerlari donostiarrak. "Nik dakidala horrelako argitalpenik ez dago. Orain arte argitaraturiko tradiziozko jantzi buruzko liburuek XIX. mendeko edo lehenagoko ondarea azaltzen zuten batik bat eta lan etnografikoak ziren gehienbat. Liburu honetan XX. mendeko fenomenoari ematen zaio erreposoa, baserritar jantziari buruzko azterketa egin ondoren; hain justu, baserritar jantziaren inguruko tesia izan da liburu honen ekarpen baliosuena-tako bat, nire ustez. Bestalde, jantziak egiteko aholkuak ematen ditu", azaltzen du.

Aipaturiko liburuez gain, aldizkariak, jasotako jantziak, eginiko galdeketa, irudi eta argazkiak eta historia, ekonomia eta baita erlijioari buruzko datuak ere erabili ditu, besteak beste. Hori bai, liburuak "ahalik eta irakurleko zabalenarengana iristeko lanari neurria hartzea" nahi du: "Jantziaren interesaturik daudenak, kulturaren beste arlo batzutan ari direnak, ikerketa lan baten ondorioen zain daudenak... eta, gainera, oro har, gaia gogoko duen edonor".



Erronkariko tradiziozko jantzia. ARGAZKIA: EUSKO IKASKUNTZA



Erronkariko tradiziozko jantzia. ARGAZKIA: EUSKO IKASKUNTZA



Janzkera zibila. ARGAZKIA: I. AGUIRRE. 'ATONDU. XXI. MENDERAKO PROPOSAMENA' LIBURUTIK.

KRITIKA > LITERATURA

Zoratzekoa

GUIZZARDIREN ABENTURAK

Jatorrizko izenburua: Le aventure di Guizzardi
Egilea: Gianni Celati
Itzultzailea: Fernando Rey
Argitaratze urtea: 2006
Argitaletxea: Igelatza

A. IRIZAR

ALE bakarria falta zen Gianni Celati italiarraren *Parlamenti buffi* (Erretolika irrigarriak) trilogia osatzeko. Aurreko biak, *Denak hasperenka* eta *Paradisuko almanaka*, orain hilabete batzuk argitaratu ziren, eta, haiek aurkeztean agindu bezala, udaberrian heldu zaigu saila osatzeko falta zena, hiru liburuetatik lehena berez: *Guizzardiren abenturak*.

Bereziak dira, inondik ere, *Parlamenti buffi* osatzen duten hiru lanak, eta hiruretan bereziena, zalantzarik gabe, hauxe dugu. Celatik berak Fernando Rey itzultzaileari adierazitako moduan, "erotutako gizagaixo baten hizketa islatzen da liburuan, ero lotsati, obsesiodun eta katatoniko baina dotore hitz egin nahi lukeen batena". Liburuak duen puntuazioa ere ez da komarrik liburu osoan, ez da paragraforik... hortik heldu da besteak beste, krisi psikotikoan dagoen eskizofreniko baten hizkera islatu nahi izatek alegia, eta esaldien joskera "traketsak" ere hori du helburu. Behin, Pesaroko ospitalean lan egiten zuten lagun psikiatra batek "eroen" idazkiak helarazi omen zizkion Celatiri, eta halatan bururatu omen zitzaion haien moduan idazteko ideia. Lehenbiziko saioak Napo-

liko aldizkari batean argitaratu zituen, eta idatzi haiekin Italo Calvinoren eta Giorgio Manganelliren babesa lortu zuen.

Itzultzea beti baldin bada berri-daztea, horrelako kasuetan zer esanik ez. Izan ere, hitzak eta esaldiak banan-banan berri-datzari beharrezkoak, liburu bera, osorik harturik, berri-datzari behar du itzultzaileak. Celatik, aurreko hori gogoan, Fernando Rey euskaratzaileari gomendatu omen zion eroetxe batera joan eta eroek zuten hitz egiteko moduari errepara ziezaion; ero euskaldunek, noski... Itzultzailearentzat, jakina, ezinezkoa izan da hori betetzea, eta horrelako proposamen bat bete ezinak gure hizkuntzaren egoeraren berri hausnartzeko bidea ere ematen du. Hala ere, esan behar da alderdi hori, hau da, eskizofreniko

baten hitz egiteko modua islatzea-rena, ongi lortua dagoela. Testua, hasieran, harrigarria gerta badaiteteke ere, segituan ohartzen gara burua nahasturik duen norbait ari zaigula hizketan.

Ahokotasunak garrantzi handia du *Parlamenti buffi*ko hiru liburuetan. Ahozko italiara saiatzen da Celati paperera ekartzen, baina bere horretan, gordin-gordin, artifizialtasuna eman diezaiokeen inongo literatura-berbizirik gabe. Guizzardik, gainera, hizkera guztiz berezia du: italiara eta dialektoa nahasten ditu, modu dotorean hitz egiten saiatu eta hanka sartzen du... Horrelakoak ez dira nolana-hiko mugak itzultzailearentzat, eta, hein batean, gainera, gaindiezinak gertatzen dira. Fernando Reyk, gutxienez, Celati beraren laguntza izan

du, eta ez da gutxienezkoa, ez horixe; korapilo bat baino gehiago askatzeko balio izango zion, segurutik, laguntza horrek.

Hiru liburuek, zein bere aldetik irakurtzeko modukoak izanda ere, badute, ahozko italiararen gaiak gainera, elkarren arteko beste antzekotasunik. Etxetik alde eginda munduan zehar dabilen mutila dugu Guizzardi, *Paradisuko almanaka*ko protagonistaren modura. Beste bietan bezala, *Denak hasperenkan* bereziki, pasadizo xebebre eta irrigarriak ere ugari aurkituko ditugu hemen. Baina, Guizzardiren ibilera irrigarriek, barrea eragitearekin batera, xamurtasuna ere piztuko digute sarritan. Eta hori ez da meritu txikia, idazleak gauzen muinera hurbilarazi gaituela erakusten baitu.